# EHZ NOMADA 2018

**Prentsa txostena - Dossier de presse**
30.05.2018



# « EHZ berrasmatzen » : transizio urte bat eztabaidan oinarritua

Aurten, gogoeta fase sakon bat eramaten ari da Euskal Herria Zuzenean elkartea, batez ere bere egitura eta funtzioei dagokionez. Horretarako, elkartearen aktibitate nagusia diagnostiko batetan kontzentratu da, publiko ezberdinen beharrei, lurraldeari eta laguntzaileei egokitzeko.
Diagnostiko hau hiru fasetan pentsatua da. Hiru fase hauek elkartearen helburuak, funtzioak eta formatu berria marraztuko lituzkete, eta formatu logiko honek aitzinetik finkatutako helburu eta funtzioak kontutan hartuz, baldintza berriak beteko lituzke.

EHZ berrasmatze prozesua bururatzeko hiru faseak:
**1. fasea, diagnostiko eta ipar Euskal Herriko argazkia:** martxotik apirilera iparraldeko eskualde desberdinetan bilkura publikoak antolatu ditugu, bakoitzaren behar, iritzi edo gogoak ezagutzeko nahian.
**2. fasea, EHZ berdefinitu:** lehen fasean bildu eta aztertutako eztabaida mamitsu guztiek, elkartearen helburuak eta funtzioak definitzen dituen dokumentua berridazten lagundu digu. Barnekalde eta kostaldeko gazteen topalekua izateaz gain, gazte euskaldun eta erdaldunen arteko zubiak eraikitzeko tresna izanen da EHZ; baita festa eremuaz haragoko alternatiba iraunkorren sorreraren bultzatuko duen eragilea ere.
**3. fasea, EHZ formatu berriaren zehazteko deialdia:** lehen bi faseetan definitutako helburu eta funtzioetan oinarrituz, orain EHZren forma berria asmatu behar dugu. Horretarako deia egiten diogu nahi duen orori, izan laguntzaile, interesatua den publiko edo/eta elkartearen lagun guztieri, haien ekarpen eta proposamenak igortzeko.

Deialdi honen lana errazteko eta elkarrekin lantzeko, hitzordu bat finkatua da, nahi duenarentzat, elkartearen egoitzan (Hazparnen, frontoi plazako, ARY eraikinean), ekainaren 2an arratsaldeko 2etan.
Bestela, proiektuak zuzenean EHZko helbide elektronikora ere (hau da; kontakt@ehz-festibala.eu) bidaltzen ahalko dira **ekainaren 15erako**.
Proiektu baten proposatzeko irizpide ezberdinak errespetatu beharko dira:
**Gutienez hiru pertsonek kolektiboki** bultzatutako proiektu proposamena (bakoitzaren kontaktuekin), EHZz dituzten gogoak eta ideiak elkarren artean trukatzeko gisan.
Kolektiboki **adostutako EHZren berdefinizioa kontutan hartu** beharko da, elkartearen desafio berriei erantzunez (helburu eta funtzio berriei).
Proposamenaren edukiak ordenagailuko **orri bat eta erdikoa** izan beharko du gutti gora behera, proiektu berriaren ezaugarriak zehaztuz: **denboraldia** (urte osokoa ? 3 eguneko ? beste ?), **lekua** (gune geografikoa(k), tokia), **baliabideak** (ze mailako errekurtsoak beharko diren humanoki zein ekonomikoki) eta **gaia** (tematika bat ? anitz ? urtero desberdinak ?).

Azkenik, **ekainaren 23an, arratsaldeko 2ak30tan Biltzar Nagusi bat iraganen da**, bilduak eta aztertuak izan diren proiektu proposamenak aurkezteko, eta denek elkarrekin 2019ko EHZ berriaren formatua adosteko.

# « EHZ NOMADA » : aurtengo festibalaren formatu berezia

2018. urtea, urte berezia izan da Euskal Herria Zuzenean elkartearentzat, transizio urte bat. Horretarako, gure ekain bukaerako asteburuak formatu berezi bat ere hartuko du. Lekorneko zelaietatik, ipar Euskal Herriko xoko ezberdinetara eginen du jauzia. Izan ere, festibal ibiltaria izanen dugu aurtengoan: « EHZ NOMADA », hiru data, hiru leku eta betiko egitarau oparo eta anitza.

• **Ekainaren 29a ostirala, Baigorriko Plaza Xokon**: hiru egunei hasiera emateko, Baigorrin ematen dizuegu hitz ordua, aniztasun artistikoak jorratuko dituen gaualdi pollit batetara. Hala nola, bi antzerkiren artean, bata Etxepare Lizeoko ikasleek emanik eta bestea Huts Teatroaren Hozkailua antzezlana, dantza ere izanen dugu ikusgai Kukai konpainiarekin eta bere Gelajauziak ikusgarriarekin. Ondotik, Doctor Mephisto taldearen kobre, kantu eta gitarraren “blues/soul” notek inarrosiko dituzte bazterrak.

• **Ekainaren 30ean, ibiakoitzez, Baionan**: egun osoko egitaraua. Goizetik arratsaldera Baionako karrikak animatuak izanen dira bertako ostatu eta Magnéto, MamiTxula, Patxoki eta Zizpa Gaztetxea elkarteekin elkarlanean. Dantza estilo desberdinak ikusten ahalko dira, baita poteo baten bidez ere, ostatu eta leku ezberdinetan animazioak izanen dira: txaranga, argazki erakusketa, musika talde, dantza ikusgarri, Dr Troll magoa eta zirkoa.
Horrez gain, Euskal Herrian eta gure mugetatik’at ditugun gaien ausnarketa momentuak ere proposatuak izanen dira eztabaida guneari esker, batez ere feminismoaz (gune ubela ere presente izanen da), errefuxiatuen harreraz, Euskal Herriko gatazkaz, edo altxatzen diren kolektibo edota autogestio guneetaz.
Gaualdia **“Mousserolles” harresietan** iraganen da, kontzertuekin. Afro-folk estiloan Kolinga bikotea, Baionako Le bal du samedi soir DJ kolektiboa, Donostiatik etorritako Pelax, Yassassin taldearen rock indartsua baita Casey rap kantari engaiatua.

• **Uztailaren 1ean, igandez, Itsasuko Atharrin**: egun goxoa adin guziendako eskaintzarekin. Goizean Atx Teatroa, Bilboko antzerki konpainia jinen zaigu Itsasuko gaztetxera, Bihotz Salataria antzezlanaren proposatzera. Ondotik Atharrin Arberoako txarangak giroa berotuko du Euskal Herriko Laborantza Ganbararen zikiro mitikoa aitzin. Zikiro hau, beti ere etxe-ekoizpenekin, tokiko kalitatezko mozkinekin eta KLI-K txarangak mementoan emanen duen giro paregabearekin burutuko da (tokiak lekuan berean goizeko 10ak30tik goiti). Ondoan eta arratsaldean zehar haurren xoko bat pentsatua da puzgarriekin eta horrez gain, Elirale konpaniaren Bihotz2 dantza ikusgarria eta Chicken Street zirko konpanien Poilu ikusgarriak izanen dira ere.
Gaualdia eta asteburua ongi bukatzeko Foisis Jaunak taldeak, 80 hamarkadako Itoiz taldearen kantuak oroitaraziko dizkigu. Azkenik, denen umore on eta parte hartzearekin Goxoki gaztetxeak bere ateak idekiko dizkigu.
Erran gabe doa, deslokalizazio hauek, abiagune berriak ideki dituela eta aurten ere, gazte zoin ez hain gazteen arteko harremanak sustatzeko, eskaintza kultural zabal bat balorizatu nahi izan dugula. Beti ere bertako eta bestelako laguntzailegoarekin elkarlanean oinarrituz.

Horretarako, 2018. urteko EHZ izanen da gure asmakuntza berrien sorgin zelaia.

# « Réinventons EHZ » : un processus de réflexion marquant une année de transition

Cette année, l'association Euskal Herria Zuzenean a décidé de mener à bien une réflexion intense et profonde sur sa structure et ses fonctions. En ce sens, notre activité s'est principalement centrée sur la mise en place d'un diagnostic afin de répondre au mieux aux différents besoins de notre public, de notre territoire et bien entendu de nos bénévoles.

Nous avons organisé ce diagnostic en trois phases. Trois temps aux termes desquels nous pourrions avoir dessiné des objectifs, des fonctions et un/des nouveau·x· format·s· pour l'association. Un format qui en toute logique répondrait aux exigences précédemment fixées par les objectifs et fonctions définies. Ci-dessous le déroulement des trois phases (du début mars jusqu'à la mi-juin) :
**1ère phase, diagnostic et situation de l'Iparralde**: pour ce faire, nous avons convoqué une dizaine de réunions publiques dans différents lieux, afin de mieux comprendre la situation actuelle de l'association et de saisir les enjeux de notre territoire.
**2ème phase, redéfinition d'EHZ:** les riches échanges de la première phase ont conduit à réécrire notre charte. Désormais, EHZ s'évertuera à créer des ponts non seulement entre les personnes de barnekalde et de kostalde, mais aussi entre les personnes bascophones et non-bascophones tout en essayant d'aller plus loin dans la construction d'alternatives.
**3ème phase, la création du nouveau projet/format d'EHZ**: après avoir convenu des objectifs et fonctions de l'association, il est temps d'entamer la troisième phase de réflexion aboutissant au format que devrait revêtir EHZ. Pour cela, nous lançons un appel à contribution ouvert à tous les bénévoles, intéressé·e·s, publics ou ami·e·s de l'association.

Dans un besoin d'efficacité, nous donnons rendez-vous à celles et ceux qui le souhaitent au local de l'association (place du fronton, bâtiment Ary, Hazparne) le 2 juin prochain à 14h00. Sinon, il sera possible d'envoyer directement le projet par mail à l'adresse de l'association qui est la suivante : kontakt@ehz-festibala.eu) **jusqu'au 15 juin.**

Pour mener à bien l'appel à projet, il faudra cependant respecter quelques critères (cités ci-dessous):
Trois personnes réunies minimum à l'initiative du projet (et leur contact), l'objectif étant que les bénévoles se rassemblent et puissent échanger autour de leurs envies et idées
Répondre collectivement aux nouveaux défis de l'association (objectifs et fonctions) en respectant notamment les décisions prises ces derniers mois lors du diagnostic.
Enfin, les différentes propositions devront contenir une longueur au minimum d'une page et demie d'information (écrite à l'ordinateur) en précisant: la longueur (le déroulement d'une année type, un grand événement de trois jours ? une activité annuelle ? à quelle intensité ?), le lieu (la zone géographique) et la thématique du futur projet (plusieurs thématiques ? une seule ?)

Enfin, **le 23 juin prochain se déroulera la dernière Assemblée générale** qui clôturera le débat interne d'EHZ, et nous allons tous ensemble, pouvoir convenir du nouveau projet de 2019.

# «EHZ NOMADA » : un format particulier pour une année particulière

En 2018, le festival Euskal Herria Zuzenean prendra un format différent. Afin de répondre à la phase de réinvention du projet, depuis les plaines de Mendionde, EHZ s'étendra à plusieurs points géographiques de l'Iparralde. En effet, nous créons cette année un festival itinérant, EHZ NOMADA, trois dates et trois lieux différents tout en gardant une programmation riche et diverse, comme chaque année.

• **Le vendredi 29 juin à Plaza Xoko à Baigorri**: le premier rendez-vous est donné à Baigorri, lors d'une jolie soirée mêlant plusieurs modalités artistiques puisqu'elle fera place à deux pièces de théâtre, la première jouée par les élèves du Lycée Etxepare et la seconde par la compagnie Huts Teatroa (avec leur oeuvre Hozkailua). Entre ces deux prestations théâtrales, un spectacle de danse s'invitera avec la fameuse compagnie Kukai et son nouveau spectacle Gelajauziak. Enfin, les gammes "blues/soul" des cuivres et des voix du groupe Doctor Mephisto nous feront danser pour clôturer la première soirée.

• **Le samedi 30 juin à Bayonne**: nous vous proposons une programmation sur toute la journée puisque du matin jusqu'au soir, les rues de Bayonne seront animées grâce notamment à la collaboration des bars locaux et des associations telles que Magnéto, MamiTxula, Patxoki et Zizpa gaztetxea. Lors de cette belle journée, un poteo nous guidera de bar en bar croisant différentes animations: une txaranga, une exposition photo, des groupes de musiques, divers styles de danse, le magicien Dr Troll et du cirque. Cette année encore, nous ferons place à la réflexion et aux échanges en proposant des espaces de parole autour du féminisme, de l'accueil des réfugié·e·s, du conflit basque ou encore des lieux autogérés. Ainsi, plusieurs moments de débats seront proposés dans notre EHZ itinérant : pour continuer à tisser nos luttes.

La soirée concert se déroulera ensuite à **Mousserolles**. Elle prendra place dans une ambiance afro-folk grâce au duo Kolinga, puis sera sur scène le collectif de DJ Le bal du samedi soir de Bayonne, nous pourrons écouter ensuite le talentueux Pelax venu de Donostia, le groupe de rock Yassassin et enfin, la célèbre rappeuse Casey, impressionnante par son flow tranchant et engagé.

•**Le dimanche 1er juillet à Atharri**, à Itsasu: une journée populaire et familiale. Dès le matin, la compagnie de théâtre Atx Teatroa de Bilbo sera parmi nous afin de nous présenter sa pièce Bihotz Salataria au gaztetxe Goxoki d'Itsasu. La suite de la journée se fera à Atharri puisque cette année encore, nous aurons l'occasion de vivre le méchoui mythique d'Euskal Herriko Laborantza Ganbara. Les produits locaux seront mis à l'honneur et l'ambiance sera assurée avec la txaranga locale KLI-K (réservations sur place à partir de 10h30). A côté et durant toute la journée, un espace sera réservé aux enfants, avec différentes activités et jeux gonflables. Par la suite, la compagnie Elirale nous proposera son spectacle Bihotz2 et la compagnie Chicken Street, son spectacle de cirque.
La soirée se prolongera avec les célèbres tubes du groupe Itoiz des années 80, interprétés par Foisis Jaunak. La fête pourra aussi se poursuivre au gaztetxe Goxoki.

Cette délocalisation durant trois jours différents nous ouvre des nouvelles voies. En effet, elle permet de promouvoir différents échanges entre les jeunes des différents coins d'Euskal Herri tout en valorisant une offre culturelle large et en maintenant l'esprit participatif du festival, grâce à l'engagement des bénévoles.

Préparez votre sac à dos et vivez cette année l'aventure nomade !




INFO PRAKTIKOAK . INFOS PRATIQUES

Txarteltegia / billetterie : **www.ehz-festibala.eu**

3 eguneko bonoa / pass 3 jours : **25€**
Ostirala / vendredi : **10€**
Larunbata / samedi : **10€**
Igandea / dimanche : **8€**

Xehetasun gehiagorentzat / pour + d'info : **ehz.kom@gmail.com**
**Plaza, ARY eraikina, 64240 HAZPARNE**